


## ZORIONTASUNA !!!



### I R I T Z I A K

- BLAS ERKIZIA
- ANTON JAUREGIZURIA
- IÑAKI MARTINEZ  
DE ALBENIZ

- MARKOS ZAPIAIN
- IZIAR BASTERRETxea

# Nola aurkitu zer den ez dakiguna

**Z**orionaz hausnartzeko mahai-ingurua egin nahi izan genuen. Ezin bildu inor ordea mahaira, hauxe denen kezka: “Zorionaz hitz egin? Baina zer da zoriona? Nola hitz egin ez dakigunari buruz?”. Eta kazetariaren erantzuna: “Heriotzaz, bakardadeaz, gaixotasunaz hitz egiten dugu, nola ez zorionaz?”. Bost iritzi artikuluetan Buda, Adam Smith, Kant, Émile Durkheim eta Jon Mirande izango ditugu bidelagun besteak beste. Zoriona amorratuta bilatzen duen gizarteaz irakurriko dugu. Zorion biderako aholkuak ere badira.

■ Onintza Irureta



# Zoriona, eguneroko itxaropena



MADDI SOROA

Blas Erkizia\*

"Gizakiaren ondasun bakarra ahuleziak, ziurtasunik ezak eta ezjakintasunak osatzen dute. Eta hor dago gakoa: indarra ahulezian sortzen da, ziurtasuna ziurtasunik ezean sustatzen da, jakituria ezjakintasunean mamitzen da. Paradoxa hirukoitz honetan abiatzen da, itxaropena elikatuz, zorionerako bidea eraikitzen ahaleginduko den tratamendua"

**P**sikiatريان ari den baten ikuspegitik, zoriona zer da?" galdetu dit ARGIAk. Eta bote pronto-ko erantzuna honakoa izan da: "Aizu, kontsultara, orokorrean, zoritxarreko sentitzen direnak datoz!". Gero, pentsatzen hasi naiz.

Egia da kontsultara zori gaiztoak, goibelak, ilunak, traketsak, latzak jotakoak etortzen direla. Gehienetan zoriaren zamapean zapuztuta, oinazean itota, bizitzaren funtsa galduta. Atzera begira galeraren sentimendua da nagusi; aurrera begira, berriz, izuarena. Eta oraina ezinaren deserosotasunean igarotzen dute. Gandiagaren olerki laburrak dioen bezala:

*Neure mugapena dut  
muga eta pena,  
ezinaren kartzelan  
zigortzen nauena*

Baina egia da, baita ere, kontsultara zori horren amaieraren desirak bultzatzen dituela, zori beltzaren aldaketaren bila datozela, zori hobeagoaren egarriak dakartzala. Tratamenduaren xedea, horrenbestez, zori

beltzetik zori argiagorainoko, egoera ilunetik egoera atseginagoraino bide jorraketarako laguntza eskaintzea da.

Hasieran, litekeen bidea, ikusi ere ez da egiten. Horizontea estaltzen duen buxadura, eragozpena, oztopoa besterik ez da hautematen. Laguntzaren eske datorren ahoan hiru motatako esaldiak dira maizenak: ezin dut, ikaratuta nago, ez dakit. Esaldiok ahalik ezaren hiru ardatzen muina adierazten dute:

✓ **Ezin dut.** Indarrik gabe, txiki, ahul, hutsaren hurrengo sentitzen dira: errealitatearen osagarri oro saihestezinekoa bihurtzen zaie; errealitatearen eta hurkoaren aurrean koldartu, kikildu, txepeldu egiten dira. Biziraupena ezintasunean murgiltzen da. Ezinean hasitako eguna oinazean joaten zaie, bere buruarekiko kontenplazio errukiorrean. Ahultasunari darion ezintasuna.

✓ **Ikaratuta nago.** Eguna babes bila pasatzen dute. Ingunatuta daudenean, zehaztugabeko eta amaierarik gabeko mehatxuzko sentimenduaren eraginez, isola

“Psikiatryan aritzen den honen ikusmiran zoriona norberak bere iragana lepoan hartu eta eguneko errealitate gordinean eraikitzen duen itxaropena da”

mendura eta ihesera jotzen dute, atsedengarria litzatekeen txoko ziur baten bila; baka-rik daudenean izuak hartzen ditu, bere buruaren jabegoa galduz, ez baitakite baka-rik egoten. Beti gordeleku baten egarritz. Ziurtasunik eza.

✓ **Ez dakit.** Euren sufrimenduaren mamia “ez dakit” esaldiak nabarmentzen du hobekien. Gertatzen zaiena ez dute ulertzen, baina, gehienbat, etortzeke dagoenari darion ezinbesteko zalantza suertatzen zaie jasanezina. Oraina, etortzeko dagoenaren ezagutza ezaren menpean dago. Ezinezkoa den jakintza horren gose asegaitzak paralizatu egiten ditu. Ezjakintasuna.

Ahultasunari darion ezintasuna, ziurtasunik eza, ezjakintasuna dira zorigaiztoaren hiru oinak. Hiru murriztapen horien mugapenean lotuta, itota, gutxiagotuta, zori txarreko eta eri sentitzen dira. Muga estu, txiki, ahularen altzoan harrapatuta, izuaren menpe, esperantza izpirik gabe. Baina itxaropenerako bidea muga horietan hasten da, hain justu. Eta Gandiagaren olerkiaren aurrean Chillidaren beste hau ipini dezakegu: “*El límite es el verdadero protagonista del espacio, como el presente, otro límite, es el protagonista del tiempo*” (“Muga da espazioaren benetako protagonista, eta oraina, beste muga, denboraren protagonista”).

Muga da gizakiaren berezkotasuna. Gizakiaren ondasun bakarra ahuleziak, ziurtasunik ezak eta ezjakintasunak osatzen dute. Eta hor dago gakoa: indarra ahulezian sortzen da, ziurtasuna ziurtasunik



ezean sustatzen da, jakituria ezjakintasunean mami-tzen da. Paradoxa hirukoitz honetan abiatzen da, itxaropena elikatuz, zorionerako bidea eraikitzen ahaleginduko den tratamendua. Paradoxa argitzen saiatuko naiz.

Indarra ahulezian sortzen da, edo hobeki esanda, ahuleziaren kontzientzian. Gizakiaren kontzientzian baitago indarra, handitasuna, edertasuna eta abar. Adibidez, izarrez jositako gaueko zero urdinaren kontenplazioan ikusleak erabakitzen du errealitate horren edertasuna. Ikuslearen begien baitan dago



edertasuna (baita itsustasuna ere). Kasik mugagabeko ortziaren, itsasoaren, unibertsoaren aurrean kontzientziadun gizaki mugatu txiki eta ahula suertatzen da handiagoa, berari baitagokio erabakia.

Horregatik, Ernst Bloch filosofoak esango lukeen bezala, subjektuaren errealitate mugatua eta murrizta, itxaropeneko afektuen (desiraren multzokoak) eraginez, potentzialtasunez beterik dago. Subjektu ahulari neurrigabeko ahaltasuna dagokio, baita errealitate, egoera, une beltzenean ere. Baitkortasuna egoera jakin erosoan sortzen den legez, itxaropena errealitate ezkorrean, ilunean, larrian ernaltzen da. Ahaltasunez beteriko subjektuaren errealitate ilunean abiatzen da Ernst Bloch-ek “utopia zehatza” deiturikoa.

Era berean, ziurtasuna ere ziurtasunik ezean jaiotzen da, edo egokiago esanda, ziurtasunik eza jasateko ahalmenean. Hain arrunta den antsietatea (edo larritasuna, herstura, itolarria, angustia) ziurtatu ezin daitekeenaren ziurtatze nahi ustelean oinarritzen da. Baretasuna, grekoen “ataraxia” miretsia, alderantziz, ziurtasunik ezaren aurrean gordetzen den norbera-

ren buruarekiko jabegoan, orekan eta lasaitasunean datza, etortzeko dagoenaren alde aurretiko ziurtasunik ez baitago.

Jakituria ezjakintasunean mami-tzen da, ziurtasunik ezari darion zalantzan. Jakintsua dudan elikatzen da. Aldez aurretik ezer ez dago erabakita, zehaztuta. Aldez aurretik ahalmena eta desira dago, ez besterik. Izaki mugatuaren ahalmen mugagabearen bilakaerak eta duda-mugan mugitzen den desiraren bultzadak eraikitzen dute etorkizuna. Itxaropenaren bidea ongi digeritutako zalantzek egituratzen dute.

Beraz ahuleziak, ziurtasunik ezak, ezjakintasunak mugatutako errealitate eta orainaldi beltz eta ilunean abiatzen da itxaropenaren trena. Ahaltasunez, potentzialtasunez beteriko trena da. Kontzientziaren bitartez ahulezia indar bihurtzen da, ziurtasunik eza jasan

behar dela jakiteak ematen dio baretasuna, zalantzen pairamenak dakar jakituria. Zeren ikusmena nerbio-optikoa erretinan itsasten den puntu itsuan sortzen den bezala, itxaropena egungo errealitate ilunean abiatzen da. Esperantzaren bidean ekidin beharreko arrisku latzena “biharkotzearena” da (ekintza denboran atzera botatzeko, geroratzeko, “biharko uzteko” joera patologikoa). Zenbat arazo eta gatazka betikotzen eta usteltzen diren “orain ez da une aproposa” aitzakia erabiliz! Itxaropena gaurko gauza da, soilik. Zori ona esperantzaren eguneroko bide jorrocketan eraikitzen da.

Beraz, psikiatrian aritzen den honen ikusmiran zoriona norberak bere iragana lepoan hartu eta eguneko errealitate gordinean eraikitzen duen itxaropena da.

*\* Beasaingo Osasun Mentaleko zentroko psikiatra.*

## Zoriona...?



DANI BLANCO

Antton Jauregizuria\*

“Ekialdean, K.a.-ko 500. urtean Shakiamuni printzeak, Buda ezizenekoak, deskubritu zuen zorionaren kausak eta efektuak mundu honetan zeudela”

**Z**oriona zer den azaltzeko lehen hurbilpena egitean honelako zerbait etor dakiguke burura: “Mundu osoak lortu nahi duen hori da zoriona, eta inork, edo ia inork, lortzen ez duena”. Zoriona hori dela pentsatzera garamatza ebidentziak, baina gerta liteke, zenbaitentzat, baieztapen hori krudela izatea.

Beste batzuentzat, mailarik gorenean ongi egotea da zoriona, eta gainera, horientzat, zorionak ez luke inolako zerikusirik izan beharko aurkakoarekin: zoritxarrekin, zorigaiztoarekin.

Zoriona eta zoritxarra uraren eta olioaren pare dira. Batak ala besteak izan behar du, ez biek; oliourik ezin liteke izan. Zoriona zeru garbia da, oskarbia zikintzen duen inolako lainorik gabe. Zoriontsu edo zoritxarreko izan behar dugu, tarteko biderik ez dago, egoera absolutua da.

Gainera, zoriona, errepublikanoa, iraultzailea, progresista da, gutxienez zeruak demokratizatzen dituelako. Jabeak (bidegabeki lurraren eta zeruaren gozamen eksklusiboa zutenak) deuseztatuta, zoriona nagusitu zen Lurrean, merezi zuten guztien artean banatu zen, eta meritokrazia ezarri zen. Ipar Amerikako Konstituzioak jasotzen duenez, merezi zuen orok zeukan zoriontsu izateko eskubidea. Frantzian, areago zehaztu zen. Hauxe da zoriona: *liberté* (askatasuna), *égalité* (berdintasuna) eta *fraternité* (anaitasuna). Desegin zen Sobietar Batasunean, tarteko beste urrats bat ere jaso zen. Denbo-

rak aurrera egin ahala, sozialismoak eta internazionalismoak gizartearen eden kolektiboa ekarriko dute, klaserik gabe, gizakiak gizakiaren aurka egingako zapalketa oro desagertuko da, estatua, estatuaren abusuak eta krimenak amaitu egingo dira. Garai historikoen amaiera izango da, gizakien arteko gatazkak amaituta, Historia bera amaituko baita.

Zoriona bilatzeko bideak taldekoak baino gehiago pertsonalak direnean, norberak azkar ulertzen du zorion indibidualak ez duela zentzurik. Jende andana biltzen zuten utopia sozial eta laiko handi haiek handitasun eta botere sentsazioa ematen zieten gizakiei. Eurak baino handiagoa zen zerbaiten parte zirela sentitzeak psikologikoki “babesten” zituen.

Zenbait filosofia harrapatu ezin den existentziaren zentzua atzematen saiatu dira, tximeleta-sare arrazionalistez eta euren ideologiez. Erljioek, txikiak eta handiak, batez ere, nolabaiteko segurtasuna eman diote jendeari, giza existentzia, oinarrian, errealitateko kaos estu, inpersonal eta ikaragarriaren parte delako ideien aurrean. Ikuspegi horretatik, erlijioak ematen duen segurtasun sentsazioa bi alderditatik dator: batetik, jendeak gizaki fededunen talde handi bateko kide dela ikusten duelako; eta bestetik, erlijio guztiak saiatzen direlako kaos kosmikoari zentzua ematen; guztiaren oinarrian adimen gorena duen izaki bat bere bizileku



ikusezinetik errealitateko pieza guztiak bere lekuan kokatzen saiatzen dela erakutsiz; guztiei tratu bera emanez. Mundu honetan zorionik izan ez duenak hurrengoan izango du –zeruan, alegia–. Zorion gehiegi izan duenak, berriz, hil osteko infernuan itzuli beharko du soberakoa. Horrela ulertzen dute zoriona Mendebaldeko eta Ekialde Hurbileko sinesmen herrikoiengan.

Ekialdean, K.a-ko 500. urtean, Shakiamuni printzeak, Buda ezizenekoak, deskubritu zuen zorionaren kausak eta efektuak mundu honetan zeudela. Desiratzeak edo baztertzeak pertsonak estutzen ditu, eta zorigaitzeko bihurtzen. Aldatzen ez den gauza bakarra etengabeko aldaketa dela ez ohartzea alferrik nekatzea da, joera nagusiaren

“Zoriona bilatzeko bideak taldekoak baino gehiago pertsonalak direnean, norberak azkar ulertzen du zorion indibidualak ez duela zentzurik”



"Ipar Amerikako Konstituzioak jasotzen duenez, merezi zuen orok zeukan zoriontsu izateko eskubidea. Frantzian, areago zehaztu zen. Hauxe da zoriona: *libertè* (askatasuna), *egalité* (berdintasuna), *fraternité* (anaitasuna)"

aurka egitea, ezinezkoa den zerbait geldiarazten saiatzea. Buruko fantasia baino ez da norbera bat-batean sorturiko izaki bakana dela sinestea, bai eta berez eusten den "ni" beregain eta bakarti bat dagoela sinestea ere. Dena dago elkarri estu lotuta, dena jaiotzen eta hiltzen da etengabe, dantza kosmiko amaigabeen: potentziatik ekintzara, bizitzatik heriotzara, eta alderantziz.

Aurretik dagoen guztia beste filosofia bat izan daiteke, eta zenbaitentzat, baita erlijio bat ere. Aski da hitzarmen bateko zenbait orritan horri buruz hitz egitea. Dena dago zaku berean! Ideia guztien edukiak edo gauzatzerakoan, ideien ondorioak berdinak ez badira ere; azkenean gauza bera da, denak jaso daitezke paperean, eta denak jar daitezke puntuan, sortetan bildutako galburuak balira bezala, eta guztiak elkarri lotuta, guztiak elkarren baliokide izateraino. Hitzak azken finean! Baina hitzak ez dira izendaturiko errealitate horiek soilik. Sagarra, "sagarra" hitza baino askoz gehiago da.

Budismoak "bederatziairen proba" propioa du, gezurrak atzemateko berezko sistema –hala bereak nola galdetzailearenak–. "Zen" esaten zaio, eta ezin da hitzetan, kontzeptuetan edo bestelako obsesioetan jaso. Ez du halaber, babesteko erabil daitekeen inolako autoritate gorenik ematen.

Norbaitek Zen-engana jotzen duenean, buruko ohiko lekuak, iragazki logikoak, jakituria... jakinak ditu, eta baliabiderik gabe gera daiteke erabat, hona-

ko honekin topo egitean: "Bidean Budarekin topo egiten baduzu, hil ezazu!", eta "zakurra hilez gero, –nire ustez– ... adio amorruari". Budaren milaka sutra –irakaspen–, milaka liburu, milaka monasterio, milioika budista, ezin konta ahala hitz, estatuak, zalantzak, filosofiak eta kantuak... hilotz bihurtuta!

Zen lore bitxi bat da, eta ez da erraza hura deskribatzea. Hortaz, hari buruzko zerbait erakusten saia gaitzke, munduan nola agertzen den kontuan hartuz. Esaterako, saiatu haren usaina honelako istorioetan antzematen:

Hauxe esan zuen maisu batek: "Gizon bat zuhaitz baten adarretik zintzilik dago. Hortzekin eusten dio adarrari. Lotuta ditu oinak eta eskuak, eta horrenbestez, ezin die adarrei heldu, ezta oinez zuhaitza ukitu ere. Zuhaitz azpian beste gizon bat dago, eta hauxe galdetu dio: Zergatik etorri zen Bodhidharma Txinara? Erantzuteko ahoa irekitzen badu, hil egingo da. Erantzuten ez badio, ordea, ez du bere zeregina beteko, eta hil egingo dute". Zer egingo zenuke bizirik ateratzeko, zuhaitzetik zintzilik dagoen gizona izango bazina? Zer erantzungo zenioke beheko gizonari?

Gerta liteke irakurleak burua nekatzeko gogorik ez izatea, eta harentzat egoki izango dira Zeni buruzko poema sorta eder hauek:

Entzutean erne ekaitzari milaka oihartzun	Kogarashi ni yoku kikeba chiji no hibiki kana.
---	--

*Shiki (1867-1902)*

Udazken haizea bihotzean, mendiak eta ibaiak.	Akikaze ya kokoro no naka no iku-sanga.
---	---

*Kioshi (1864-1959)*

Euri-jasa belarrei eusten diete txolarreek.	Yûdachi ya kusa-ba o tsukamu murasuzume
---	---

*Buson (1716-1783)*





Eugène Delacroix, *La Liberté guidant le peuple* (1830).

Zoriona bide horretatik lortu nahi dutenek, “beti irribarretsu” zegoen Budaren bidetik alegia, adimen sakonik eta sentsibilitate poetiko berezirik ez badute, Za-Zen praktika dezakete –eseri, eta mugitu gabe, isilik, arnasa hartu, esna, lasai eta argi–. Gerta liteke, nahi gabe, gauza interesgarriren batekin topo egitea.

*\* Psikologoa eta Zen meditazioko monitorea.*

“Zoriona errepublikanoa,  
iraultzailea, progresista  
da, gutxienez zeruak  
demokratizatzen dituelako”

## Zoriontasunaren ajeak



INIGO AZKONA

Iñaki Martínez de Albeniz\*

"Modernitate klasikoaren proiektu zibiko-politikoaren eta modernitate erreflexiboaren proiektu liberal-terapeutikoaren itzalean, inauteriaren xede den 'hemen eta orain'aren logika da zoriontasuna bete-beteen zeharkatzen duena"

I ntuzioaren aurkako hipotesi batekin hasiko naiz. Zoriontasunak mekanismo maltzur baten baitan jarduten du: zoriontasunaz hitz egiteak (modernitatearen obsesioetariko bat da), bere gauzatzea oztopatzen du. Zoriontasunaren inguruan aritzearen trantzean nagoela, bat-batean datorkit burura ondorio epistemologikoak dituen honako galdera hau: Zoriontasunaz idatzi eta hausnartu al daiteke zoriontsu izanda, ala beharrezkoa da zorigaitzeko egoera bat nozitzea? Ez dut horrelakorik baieztatuko, baina bete-beteen asmatuko du zoriontasunaren inguruan hausnartu, komentatu edo kritikatzek ideia bera eragozten duela susmatzen duenak. Urrunago joan beharrik ez daukat: niri, adibidez, testu hau idazteak zoritxarreko buruhaustek ekarri dizkit azken egunotan.

Zoriontasuna paradoxa pragmatiko bezala ulertu daiteke gaur egungo gizarte konplexuetan. Alegia, esatearen eta izatearen arteko desadostasun gisa. Izan ere, paradoxa pragmatikoen mamua gizarte bizitza osora heda daiteke, eta idatzita ez dagoen modernitatearen lege hau da eszeptizismoan militatzera bultzatzen gaituena. Gauzatzen ez diren profeziei buruz ari naiz: zoriontsu naizela esan ahala

suspertu egiten dut, bide batez, zoriontasuna galarriziko duen prozesua bera.

Hausnarketa objektu bilakatu gero, zoriontasunak garapen gaiztoa dauka: neurosi bihurtzen da. Alegia, zoriontsu izateko, ezinbestekoa zait zoriontsu naizela konpultsiboki errepikatzea, ispilu aurrean zein jendaurrean, esateak izatea balekar bezala, nahiz eta badakigun konpultsio honek zoriontasunaren lorpena bera ezintzen duela. Honen adibiderik argiena prentsa arrosan agertzen diren pertsonaiak dira, behin eta berriz "orain zoriontsu naiz" berresten dutenak.

Emozioak reifikatu ditu modernitateak; bizirik dagoena, fluxua, gauza bihurtu du. Osagai kimikoen taula bailira irudikatuz eskuraezin bihurtu ditu emozioak. Zoriontsu izatearen beharrak, zoriontasunaren kontzientzia areagotzearekin bat, bere praxia aldrebestu du iheskor bilakatu. Zoriontasuna estrukturaliki iheskor bilakatu da: nahi duzunean ihes egiten du eta nahi ez denean da soilik eskuragarri zoriontasuna.

Ez da ordea beti horrela izan. Badago historian zehar zoriontasunaren egitasmo baikorragorik. Hala nola, bere jatorrizko adieraren arabera (greziar filo-


sofoei zor diegu), zoriontasuna uztartzen da norberaren gobernuarekin (ataraxia), zuhurtasunarekin (phronesis) eta oro har *bizitza onarekin*. Gerora, modernitate kapitalistaren baitan, psikologia, gizatasuna zientifikoki soslaitu duen zientzia, izango da zoriontasunaren arazoari helduko diona. Izan ere, modernitatearen oinarrian dago sentimenduak erreflexiboki kudeatzearen xedea, gizarte zein ekoizpen harremanetan etekin itzelak ematen dituena. Modernitateak, beraz, zoriontasunaren eta oro har atseginareen sen produktibista garatuko du.

Freud handia izan zen zoriontasunaren adiera patologikotik beste ulermen terapeutiko honetarako trantsizioaren argilunak bere gain hartu zituen. Vienako jakintsuaren aburuz, familia burgeseko alabak, etxe berean lan egiten zuen giltzazainaren alabarekin alderatuz gero, zoriontsu izateko aukera murriztagoak zituen, bere klase sozialari zegokion sentimenduen kontrolaren ezarpen kulturala zela eta. Hala ere, modernitate erreflexibo izenpean ezagutzen ditugun gaur egungo gizarteetan alderantziz gertatuko litzateke: burgesen alaba izango da zoriontasunetik gertuago egongo dena. Patologia zena, (auto)kontrolaren ezarpena, trebezia bilakatu da, alegia, harreman estuetan, gizarte bizitzan eta lan esparruan ezinbestekoa den jarrera erreflexiboa garatzeko gaitasuna, lengoia, komunikazioa, zain-

tza eta oro har subjektibitatea eraikitzeke ezinbestekoak diren euskarrien kudeaketa errazten duena. Hitz gutxitan: zoriontasuna landu egiten da. Zoriontasuna hein handi batean despolitizatu egin dela irudituko zaio askori; ez da jada zoriaren erreinkoa. Are gutxiago aldaketa sozialaren eraginpekoa. Ezagutzaren arloan kokatu behar da. Zoriontasunaren inguruko ezagutza eta teknologiak (psikologia akademikoa, auto-laguntzako liburuak eta, zergatik ez, osagarri kimikoak) desberdin banatuta daude gizarteetan. Beraz, adituak izango luke soilik zoriontsu izateko aukera, *know-how*-aren jabe denak.

Soziologia luze eta zabal aritu izan da azken urteotan zoriontasunaren adiera politiko-kulturaltik urrunduz, sustapen terapeutikoa duen beste honetarako aldaketaz. Esan gabe doa, ordea, bat-batean ikusezina den mami handiagoko prozesua: askoren esanetan, modernitate erreflexiboan identitate pertsonala eta bizitza-estiloa taxutzeko baliabideek, materialek zein intelektualek, osatzen dute politikaren erregai berria, estatu eta alderdietatik harago, noski.

Hala ere, gauza bat da gizaki moderno subjektibitatea kudeatzeko gai dela esatea eta oso bestelakoa zoriontasunaren ikuspegi psikologizistan erortzea. Hein handi batean, zoriontasunaren ajeak modernitatearenak ere badira. Gauza ez da



"Modernitateak zoriontasuna joko bezala bizi izan du, bizitza-apustu bezala, aukera dikotomikoa, baztertzailea: zoriontsu naiz ala ez. Posmodernitateak zoriontasunaren jokoari pozaren jolasa kontrajartzen dio, pozik egotearena. Jolasa: ludikoa, bat-batekoa, txikikeria, errentagarritasunik espero ez duena, ironikoa. Burujabearen jokoa da zoriontasunarena. Burugabearen jolasa, ergelarena, poza"

subjektu modernoa gero eta moldakorra dela baieztatzea, baizik eta subjektuaren irudia bera eta mahats-sorta baten moduan atxikiturik dituen burujabetasun, koherentzia eta iraunkortasunaren kontzeptuak irristakorrak direla onartzea. Zentzuzkoagoa da gaur egun erabateko subjektuaz baino subjektu posizioei buruz hitz egitea. Posizio horiek askotan modu kontraesankorrean jardutera behartzen gaituzte.

Egitasmo berri honen arabera, zoriontasuna ez litzateke gehiago zorian, kalkulu arrazionalen edota aldaketa politikoan oinarritutako proiektu iraunkorra izango. Iraunkorra den gauza bakarra iraunkortasun eza da. Modernitate klasikoaren proiektu zibiko-politikoaren eta modernitate erreflexiboaren proiektu liberal-terapeutikoaren itzalean, inauteriaren xede den "hemen eta orain"aren logika da zoriontasuna bete-betean zeharkatzen

duena. Hain zuzen ere, zoriontasuna hausnarketa objektutzat jotzen ez zuten garaietan –Erdi Aroan adibidez– hedatzen zen moduan hedatzen da gaur egun zoriontasunaren pozoiz gozoa: izurrite edo rizoma moduan.

Lehenxeago, prentsa arrosaren adibidera jo dut zoriontasunaren neurosia irudikatzeko. Kontrako adibideak *flash-mob* izenpean ezagutzen diren mobilizazioak izango lirateke, neurosia modu katartikoan gainditzen dutenak. Flash-mob-ak (<http://es.wikipedia.org/wiki/Flashmob>) gertakari bitxiak dira oso: denbora mugatuan zentzugabeak diruditen ekimenak –adibidez, jainkosa bailitzan, ToysRUs makrodendan zegoen plastikozko dinosauroari erreberentziak egitea– burutzeko asmoz biltzen da jendea. Xelebrea eta hutsala badirudi ere, flash-mobak badu zer erakutsi zoriontasun kontutan.

Modernitate klasikoaren xedea beti izan da zoriontasunaren iraunkortasuna erdiestea. Haatik, zoriontasuna *izan* aditzaren bitartez deklinatu du. Izan: identitate finkoen gramatika, iraunkortasunaren eredu, megalomania... Flash-mobek zoriontasunaren gramatika alternatiboa proposatuko lukete: *egon* aditzaren bitartez deklinatzen dena, egoerari atxikia, tokian tokikoa, behin-behinekoa, "situazionisten" gustukoa...

Euskarak dikotomia hau ulertzeko bikote ederra eskaintzen digu: jolas/joko. Modernitateak zoriontasuna joko bezala bizi izan du, bizitza-apustu bezala, aukera dikotomikoa, baztertzailea: zoriontsu naiz ala ez. Posmodernitateak zoriontasunaren jokoari pozaren jolasa kontrajartzen dio, pozik egotearena. Jolasa: ludikoa, bat-batekoa, txikikeria, errentagarritasunik espero ez duena, ironikoa. Burujabearen jokoa da zoriontasunarena. Burugabearen jolasa, ergelarena, poza.

Erabil ditzagun, beraz, gure alde modernitatearen kaleitsuak, paradoxa pragmatikoak, gauzatzen ez diren profeziak: akaso zoriontasuna bidezko ez dela esateak bere gauzatzea abian jarriko luke. Baina horretarako alde aurretik gure bizkarretatik zama astuna kendu behar dugunaren susmoa daukat. Bakoitzak neur beza berea.

## Pedofiloaren zorion arbuiatua



INIGO AZKONA

Markos Zapiain\*

"Kontua da gure gizarteak harreman pedofiloa gaitzesten duela, baita umeak onartzen duenean ere, onarpen horren kalitatea zalantzarri baitzaio. Ondorioz, pedofiloak ezin du gurean bizitza zoriontsu samarra atxiki eta iraunarazi, pozaldi bakanak senti ditzakeen arren, derrigorrez legez kanpo"

**H**obe zuen zoriaren meneko utz zezan bere burua –zoriona ala zorigaiztoa zatekeenetz ez zekien, Theresaren gidaritzapean izanen zela baizik– (Jon Mirande, *Haur besoetakoa*).

Geroaren igarbideen artean, egiptoarrek eta etruskoek garrantzi berezia ematen zioten txoriaren hegaldiari. Era berean geroxeago grekoek eta latin-darrek, eta Mendebalde osoak, geu barne.

Zori ona, zori edo txoriaren hegaldi ederrak adieraziko lukeen bizimodu dontsua litzateke; eta zori txarra, ostera, hegaldi traketsak seinaleztatutako hondamendia.

Erdarazko "pájaro de buen o de mal 'agüero'" edo "oiseau de mauvais 'augure'" ezagunak, bestalde, latinezko "augurium"etik datoz, eta "augurium", berriz, "augur"etik.

"Augur" delakoa erromatar sazerdotea zen, txorien kantua, hegaldia eta jateko modua interpreta-tuz etorkizunari antzematen ziona. Iragartze hori Elizak bekatutzat du, Lehenbiziko Aginduaren aurkakotzat zehazki.

Corominasen iritziz, gure "augur" ere

"augurium"etik dator ziurrenik (gatzelaniak euskaratik hartu omen zituen "augur" zein "abur").

Aro psikopolitiko berri batean sartzen ari garenez, gogoratu behar "inauguratzea" etxe berriaren augurioak zaintzea dela, etorkizunean zoriek larregi desafinatu barik kanta diezaguten.

Edonola ere, pedofiloari ez diogu etxe berrian sartzen utziko. Mozorroturik sartzea lortuko balu, bere egia susmatu bezain laster egotziko genuke.

Zoriona, bizitza zoriontsua, eta unean uneko pozaldiak bereiz daitezke. Zorionaz ari dela dio Aristotelesek, enara bakar batek ez dakarrela udaberria. Hala ere, bizimodu zoriontsuak oinarri egoki bat jartzen du noizbehinka estasiszko pozak piztu daitezen.

Bizitza zoriontsua ezin da soilik norberaren pentsamenduak zuzen bideratuz eskuratu, estoikoek sarritan hori aldeztu duten arren. Horretxegatik gertatzen da beren eudaimonia ponposo eta teatrala, Aristotelesenarekin alderatuz gero. Estoikoentzat, jakintsuak bere kontzientzia bertutetsua gotorleku

"Platonek dio ez zukeela filosofatuko baldin Atenaseko mutiko gazteak hain ederrak ez balira. Sasoi hartan (Sinposioa-n behintzat bai) maitasun zerutiarrak gizon helduarena baitzen, bixarra irteten hasten ari zitzaion mutikoarengana"

helezin bilakarazi, sentiberatasuna amatatu eta han goitik seriotasun larriz izango da munduko gorabeheren lekuko. Defentsazko zurruntasun horri deituko dio zorion.

Zentzuzkoago dirudi Aristotelesek, dioelarik bizi-modu zorionsu batek eskatzen dituela bakardade heroiko hutsa barik ekonomia lasai bat, osasun apur bat, egoera afektibo atsegina eta nolabaiteko izen ona gizartean.

Halaber dio, gaur egungo sexologo eta psikologo gehienek bezala, zorionsu bizitzeko sexu harreman asebetegarriak behar direla.

Horrela, gehienok zorionaren beharrezko baldintza gisa hartzen ditugu bai jendartean gizatxartzat jo ez zaitzaten eta bai sexu ona. Bi onura horien eta beste zenbaiten bidez saiatzen gara zorion deitu izan duguna gureganatzen, Nietzscheren azkeneko gizonaren zoriona, atsegintxoren bat egunez eta atsegintxoren bat gauez, baina beti ere pasatu gabe, Osasunari begirunea zor.

Sexu harreman ametigarria zein ote den erabakitzeke orduan, badugu adostasun liberal antzeko bat: onargarri zaigu baldin kideek harremana borondatez onetsi badute. Naturala/antinaturala tankerako bereizketek indarra galdu dute, borondatez onartua/ezarria-ren alde. Behinola susmagarria zen masokismoa gaur egun iritzi emaile frankok laudatzen dute, protagonistek sarritan idatzizko kontratu batean oinarritzen baitute kontaktua. Aldiz, nekrofiliak zein zoofiliak beheiti egin dute,

hilotzak bezain nekez adieraz baitezake ahuntzak baimena. Baldin ahuntzainarentzat zaila bada ahuntzaren behakoen edo gorputz-jarreraren semiotika artez interpretatzea, zer esanik ez zoofilo kalekumearentzat (ia denak).

Kontua da gure gizarteak harreman pedofiloa gaitzesten duela, baita umeak onartzen duenean ere, onarpen horren kalitatea zalantzarri baitzaio (hori bai, honi gagozkiola ez du aintzat hartu nahi izaten helduen arteko pasiozko amodioa ere maitarien borondateari gailentzen zaiola). Ondorioz, pedofiloak ezin du gurean bizitza zorionsu samarra atxiki eta iraunarazi, pozaldi bakanak senti ditzakeen arren, derrigorrez legez kanpo.

*Jon Mirande*



**HAUR  
BESOETAKOA**

**poitako.e**



Gure gizartearen eta pedofiloaren zorionaren arteko gatazkaren konponbideak zaila dirudi. Ez da hala ere edozein gizartek definizioz pairatu beharreko gatazka. Platonek dio ez zukeela filosofatuko baldin Atenaseko mutiko gazteak hain ederrak ez balira. Sasoi hartan (Sinposioa-n behintzat bai) maitasun zerutiarra gizon helduarena baitzen, bixarra irteten hasten ari zitzaion mutikoarengana. Gainerakoak, arruntak. Atenasen onartua zena trauma ikaragarri bilakatu zaigu ordea. Gisako maitasunei ezikusia egitea ere zail litzaiguke. Eta amorragarri eta apika zigorgarri, pedofiloari astean ume bat eskaintzeko proposamena bera, pedofiloa antzinako idoloaren bat bailitzan bere aldarean umea sakrifikatzekoa.

Arazo hauen inguruko giro urduriak euskaldun batzuk isilarazi ditu. Bere oroitzapenen berri izan orduko ulertuko duzu zergatik ez den jendaurrean mintzo egun berrogei urte inguru duen EAEko gizon bat: hamar/hamaika zituela, bizilagun batek, gizon heldua, zirriak egiten zizkion eskaileretan edo igogailuan topo egiten zutenean, eskua sartu, zakila igurtzi...

Eta "biktimari" gustatu egiten zitzaion. Ez du esaten bere bizitzako benetako pozaldi bakarrak izan direnik, edo irrikaz dagoenik bere seme-alabek ere antzeko zerbait bizi dezaten. Zuhurra da. Eta primeran pasatzen zuen.

Oso zaila da esperientzia hori gurean pedofiliatz nagusi den ikuspuntu historikoan integratzea. Historiko zeren, besteak beste, maltzurki sartzen ohi baitira zaku berean hiru urteko umea bortxatu eta akabatzen duena eta, *Haur besoetakoa*-ko gizon protagonista bezala, hamaika urteko neska batez zinez amorosturik, ukitu lizunak egitera mugatzen dena. Theresak gainera gustura hartzen ditu. Gizona maitatzera helduko da.

Theresa umezurtza etxera ekarri ziotelarik, gizonak, Joxe Azurmendiren esanetan, "gutxi asmatzen zuen orduan, Zoriak zekarkiola Theresa. Berak ez du ezer egin, Zoriak etxera sartu ziona etxean hartu baino: bere zoria eta zoriona" (*Mirande eta kristautasuna*).

Aurrerantzean, pedagogiari loturiko zorion ozar batek biziko du bikotea. Gizonari Theresa zaio

"Miranderen protagonista  
 umezaleak badaki  
 jakin bere jardunak ezin  
 diela ekarri, berari  
 zein Theresa maiteari,  
 oinazea eta katastrofea  
 baizik; hala ere,  
 hil arte jarraituko du  
 bere desira malerusari  
 muzin egin gabe,  
 zori koitadua legez,  
 etorkizun iluna susmatu  
 eta susmarazi arren  
 ezin baitie ehiztarien  
 tiroei txiri egin"

premiatzko gizarte bakar. Joxe Azurmendiren alde-raketa deigarriaren arabera, gizonak "oiloa etxe ondoan harrapatu eta bere ehizarekin basazulo ezkutu-ekzutuan ezkutatu den piztia dirudi, hagin artean bere xoria, zoriona, guziengandik ihesi".

Gizonak bai baitaki bera lakoei gizarteak gorroto diela, gizartean jaun eta jabe diren txintxo eta zuzenek Theresaren eta beraren zorion aratza pitzatu nahiko dutela. Gizonak garbi ikusten du Theresaren alboan "lortu zuen zorionak ezin iraun zezakeela, egin zuen ametsa ezin bihur zitekeela egia. Besteek ez zioten zorion hauskor hori hautsi gabe utziko, edozein bidez eragotziko zioten".

Intenbiderik ez eta heriotzak eramango ditu nola Theresa hala gizona.

Dena den, ez da heriotza Mendebaldeak pedofiloari eskaintzen dion aukera bakarra. Hor daude orobat zikiratzea, eroetxea, espetxea eta Thailandia.

Edota lintxamendua. Gizarte bat benetan kohe-sionatzen duena ez baita bere jatorria edo ohartuki adosturiko helburuak, baizik lintxamendurako hautagai nagusia nabarmena eta zehatza izatea.





Eta lintxagai ideal gisa, oso kontsentsu zabala du gurean pedofiloak, zabalagoa noski gaur egun ijitoak edo terroristak berak baino.

Osterantzean, uko egin diezaiola maitatzeko bere manerari eta zorionari. Estoikoen ildotik euts diezaiola goitiarki bertuteari. Gogoratu dezala hainbat sortzaile egon dela gertu, Nietzsche bera kasu, zoriona sakrifikatzeke, obraren alde. Bestela, mugatu dezala sexualitatea irudimenaren esparrura. Edo ekin diezaiola sublimazioaren igokundeari, “gizon handi” deitu izan dena bilakatu arte, hots, heroi, saindu edo buruzagi goren. Mesederik handiena egingo dio halatan arbuia, mehatxatu eta kanporatu zuen gizarteari: malgutu, zabaldu eta aberastu egingo baitu. Ondoren, ordainez, gizarteak ohoratu egingo du barruko pedofiloa bere baitan zorrozki

kaiolatzea erdietsi duen gizon handia.

Atezuan edukiko du ordea beti. Horrexegatik bilakatzen da hain arin saindu handia pedofilo, eta alderantziz. Freudek erakutsi zigunez, errepikatzeke irrika, mingarria delarik ere, sakonagoa baita, maiz, zorion beharra baino. Miranderen protagonista umezaleak badaki jakin bere jardunak ezin diela ekarri, berari zein Theresa maiteari, oinazea eta katastrofea baizik; hala ere, hil arte jarraituko du bere desira malerusari muzin egin gabe, zori koitadua legez, etorkizun iluna susmatu eta susmarazi arren ezin baitie ehiztarien tiroei txiri egin.

*\* Filosofia irakaslea.*



SANTILAGO YANIZ

Izlar Basterretxea\*

## Zoriontasuna

“Edozein bizidun ezin da zoriontsua izan, are gehiago bizi ere ezin du bizi, bere beharrianak ez badaude bere bitartekoekin orekatuta. Bestela, lor dezaketena baino gehiago eskatzen badute edo beste barik zer edo zer ezberdina eskatuz gero, etengabe izango dira minduak eta ezin izango dute min barik funtzionatu”. Émile Durkheim.

**B**izitza zoriontsua bere naturagaz bat egiten duena da” horrela esaten zuen Senekak<sup>1</sup>. Esaldi sinplea, gogoratzeko erraza eta zentzuzkoa ematen duena, baina gauzak ez dira hain errazak. Esate baterako, zer da “bere natura”? Zer da “bat egitea”? Nork erantzun behar ditu galdera hauek? Erantzun ezberdinak egonez gero, zelan erabaki zein den zuzena? Pertsona guztiek erantzun beharko lukete berdin? Azken batean, natura bakarria bada guztiontzat bat egite horrek berdintsua izan beharko luke guztiontzat ezta?

Galdera asko agertzen dira horrelako kontzeptu handiaren aurrean, baina ez dira bakarrak, esate baterako, zoriontasunaren galdera hau unibertsa da? Mundu osoan, talde guztietan eta historiako momentu guztietan planteatzen al da? Egia esateko, hiru informatzaile baino ez ditut izan, baina antza denez, kitxua hizkuntzan ez dago “zoriontasuna” zuzenean itzultzeko hitzik. Esan nahi al du horrek kitxua hitzunez ez dutela zoriontasunaren sentimendua edo egoera ezagutzen? Argi dago ez dela horrela, baina horrek beste galdera batzuk egiteko aukera ematen

digu, esate baterako, zein da “zoriontasuna”, “poztasuna”, “alaitasuna”... eta antzekoen arteko harremana? Edo, zer da zoriontasuna, sentimendu bat ala egoera bat? Zein da gizabanako eta gizarte barruko eta kanpoko egoeren arteko lotura?

Galdera nahiko gaiaren zailtasuna adierazteko, norberak segi dezake beste hainbat ipintzen. Beraz, hemendik aurrera, artikulua honetarako eskatu didaten Soziologiaren edo Gizarte Zientzien ikuspegia labur-labur ematen ahaleginduko naiz. Pentsamenduaren historian, pertsona ezagun batzuen idazlanetan dauden aipamen batzuk ikusiko ditugu lehenengo, eta gero inkesten bidez egindako jendearen zoriontasun mailari buruzko datu batzuk eskainiko ditut. Ondorioak nik neuk ateratakoak izango dira baina, irakurleek izango dute (hala espero dut) eurenak ateratzeko aukera edo, gutxienez, hortaz pentsatzen segitzeko aukera.

### Zoriontasunaren aipamenak hainbat pentsalari “klasiko”ren idazlanetan

Senekarekin jarraituz, “(...) Esan diezaiokegu zorion-

<sup>1</sup>Seneka: *Sobre la felicidad*. Clásicos de Grecia y Roma. Alianza Ed. Madrid 2002. 50. or.

tsua, arrazoiari esker, ezer nahi ez duen eta beldurrik ere ez duenari<sup>2</sup>’ eta apur bat geroago diosku: “Beraz, benetako zorientasuna bertutean datza<sup>3</sup>”.

Seneka pentsalari estoikoa zen, aldaketa eta ziurutasun eza handiko egoeretan babesteko “jakintsuaren” ideala defendatzen zuen. Bere planteamendu orokorra nahiak asetzea baino mugatzea zen, zorientasuna pertsonak berak sortu behar zuen, ingurua edozein izanik, eta horretarako arrazoa erabili, bere buruari mugak ipini eta oreka bilatu behar zuen.

Immanuel Kant-ek hainbat zorientasun mota aipatzen ditu: “... Batzuek zorientasun morala eta zorientasun fisikoa desberdintzen dituzte (lehenengoa norbere pertsonarekiko satisfazioan eta norberaren portaera moralean datza, beraz, egiten denarekiko satisfazioan; bestea, naturak ematen duenarekiko satisfazioan datza, beraz, beste batek emandako opariarekin gozatzen denarekiko satisfazioan)<sup>4</sup>”.


Kanten ustez, norberaren zorientasuna “pertsona guztiek duten helburua da (euren naturaren bultzakadari esker), baina helburu hori ezin da inoiz beharra legez kontsideratu kontraesan baten jausi barik. Norberak berez, ezinbestez, nahi duena ez dago beharraren kontzeptuan sartuta, honek nahiaren kontran onartutako helburuarenganako koertzioa adierazten duelako. Beraz, kontraesana da gure zorientasuna bultzatzera behartuta gaudela esatea<sup>5</sup>”. Kantek beraz, ez du zalantzan jartzen pertsonok gure

“Gizabanakoa guztiz berekoitzat jo arren, besteen patua interesatzen zaio, eta besteen zorientasuna beharrezko egiten zaio, zorientasun hori ikustearen plazera baino lortzen ez badu ere”.  
Adam Smith

<sup>2</sup>Ibidem. 54. or.

<sup>3</sup>Ibidem 80. or.

<sup>4</sup>Kant, Immanuel. *La metafísica de las costumbres*. Tecnos. Madrid 1989 (Lehenengo argitalpena 1797an) 388. or.



ontasuna edo zorientasuna bilatuko dugula, ezta bilatze hori naturala, berezkoa, dela ere, berak azpimarratzen duena da gure “beharra besteen zorientasuna” bilatzea dela. Beraz, zorientasunarekin lotuta beste ideia bat agertzen zaigu: besteekiko lotura.

Hortik aparte, Kantek, beste gauza askoren artean jakina, azpimarratu egiten du behar moralei erantzuteko, pobrezia, gaixotasuna, ezintasuna... oztopo handiak direla eta zentzu horretan esango du pertsonok, gure behar moralei erantzun ahal izateko, badugula gure ongizatea bilatzeko “zeharkako beharra<sup>6</sup>”, kontuan izanik, kasu horretan, ez genukeela ongizatea bilatuko gure zorientasuna lortzeko baizik eta gure integritate morala mantentzeko.

Adam Smith da beste ikono bat mendebaldeko pentsamenduan. Gehienetan kapitalismoaren defentsarekin lotzen bada ere, askotan ahaztu egiten da *La teoría de los sentimientos morales*<sup>7</sup> liburuaren egilea ere badela eta bertan holako gauzak esaten dizkigu: “Gizabanakoa guztiz berekoitzat jo arren, besteen patua interesatzen zaio, eta besteen zorientasuna

<sup>5</sup>Ibidem. 237. or.

<sup>6</sup>Ibidem 240. or.

<sup>7</sup>Adam Smith. *La teoría de los sentimientos morales*. Alianza Ed. Madrid 1997 (6. argitalpena 1790an)

"Zoriontasunaren galdera hau unibertsala al da? Mundu osoan, talde guztietan eta historiako momentu guztietan planteatzen al da? Egia esateko, hiru informatzaile baino ez ditut izan, baina antza denez, kitxua hizkuntzan ez dago 'zoriontasuna' zuzenean itzultzeko hitzik. Esan nahi du horrek kitxua hiztunek ez dutela zoriontasunaren sentimendua edo egoera ezagutzen? Argi dago ez dela horrela"

beharrezko egiten zaio, zoriontasun hori ikustearen plazera baino lortzen ez badu ere<sup>8</sup>". Bestalde, Smithek azpimarratuko du, Kantengan ikusi dugun beste ideia bat, hau da, inguruaren eta ongizatearen garrantzia (gogoratu behar dugu Kant eta Smith sasoi berekoak zirela, lehenengoa alemana, bigarrena eskoziarra eta egiaztatuta egon ez arren logikoa da pentsatzea bata bestearen lanak ezagutzen zituela): "Ustez bizitza honetako erosotasunaren eta zoriontasunaren osagarriak diren gizabanakoaren osasunaren, aberastasunaren, posizioaren eta izenaren zainketa da gehienok prudentzia deitzen dugun bertutearen zeregina<sup>9</sup>". Bestetik, Smithek Estatuaren "zoriontasuna" gure ardura ere badela aipatzen du eta, gainera, ardurara hau naturak emandakoa dela dio.

Pentsalarien atal honekin amaitzeko askoz gaurkagoa den batengana hurbilduko gara, Émile Durkheim frantziarrarengana, hain zuzen. Durkheim Soziologiako lehenengo katedraduna izan zen eta oso ezaguna den *El suicidio* ikerketa egin eta idatzi zuen<sup>10</sup>. Bertan aztertzen ditu zeintzuk diren bere

burua hiltzen dutenen inguru sozialak, azkenean, horren pertsonala ematen duen ekintzaren ostean dauden baldintza sozialak azpimarratuz.

Azterketa honetan Durkheimek "anomia" kontzeptua proposatzen du, gizarteak arau sendo eta argiak eskaintzen ez dituenean sortzen den pertsonentzako egoeraren larritasuna adierazteko. Suizidio anomikoari eskaintzen dion atalean horrela diosku egile honek: "Edozein bizidun ezin da zorionsua izan, are gehiago bizi ere ezin du bizi, bere beharrianak ez badaude bere bitartekoekin orekatuta. Bestela, lor dezaketena baino gehiago eskatzen badute, edo, beste barik, zer edo zer ezberdina eskatuz gero, etengabe izango dira minduak eta ezin izango dute min barik funtzionatu<sup>11</sup>". Eta bere argumentua garatzeko zera galdetzen du: "Nola finkatu daiteke pertsona batek eska dezakeen ongizate, erosotasun edo luxu maila? (...) Bere kabuz mugatu dezakeen kanpoko edozein botere kontuan hartu barik, gure sentsibilitatea bete ezina, amaiera gabeko labarra da (...), beharrian moralentzako beharrezkoa da, gorputzak beharrian fisikoentzako bete-

<sup>8</sup>Ibidem 49. or.

<sup>9</sup>Ibidem 382. or.

<sup>10</sup>Durkheim, Émile. *El suicidio*. Buenos Aires, Schapiro 1971

<sup>11</sup>Ibidem 195. or.

tzen duen botere arautzailea bezalako botere morala<sup>12</sup>. Durkheimentzat botere moral hori gizartea izango da, gizabanakoaren iritzian justua, onargarria den gizartea. Arauak ezabatzen direnean, pertsonaren muga moral horiek, nahien kontrola, ezabatu egiten dira eta pertsona ez da zorionsua izateko gai.

Orain arte beraz, pertsona, taldea, bitartekoak, estatua eta arauak agertu dira zoriontasunarekin lotuta. Baina horiek “pentsalariak” dira, halako gizaki arraro eta eskasak, zer da jende xumeak sentitzen duena? Gure burutapen honekin amaitzeko inkesta pare bateko datuak ikusiko ditugu.

### Jendearen zoriontasunaren pertzepzioa

Agertu gura ditut irakurtzen ari zaren artikulua prestatzeko erabili ditudan lan bi, gazteen artean egindakoak. Bata Liman (Peru) egindakoa da eta bestea Espainian<sup>13</sup>. Limako azterketan gazteen zoriontasunaren pertzepzioa beste aldagai hauekin lotuta aztertzen da: bere buruarekiko poztasuna, familia, lagunak, bizitza soziala, osasuna, aberastasuna eta maitasuna. Espainiakoan ez bezala, aldagai horiek lotzen dira gazteen mailaketa sozioekonomikoarekin. Lau talde eratzten dira: aberatsak, maila ertain-altua, ertain-baxua eta oso baxua. Lortutako ondorioek adierazten dute aberatsak, orokorrean, zorionsuagoak sentitzen direla oso pobreak edo maila ertain-baxukoak baino. Aldagai guztietan agertzen da aberatsen eta txiroen arteko ezberdintasun esanguratsu hori, hau da, aberatsak lagunekin, osasunez, bizitza sozialean, maitasunean eta euren buruekin hobeto sentitzen dira pobreak baino. Salbuespen bakarra familia harremanetan dago; maila ertain-baxuak irabazten du beste guztien gainetik. Aipatzekoa ere bada, zoriontasunaren pun-

tuazioa ondoen azaltzen duen aldagai “Bere buruarekin ondo sentitzea” dela.

Espainiako ikerketan ez dago horrelako banaketa sozioekonomikorik eginda eta datu gordinak baino ez dira agertzen, baina gazteen artean zorionsuak direla esaten dutenak %56,9 dira eta apur bat edo ez askorik %42. Honekin lotuta, euren bizitzarekin pozik daudenak %61,9 dira, %34,6ak “askorik ez” erantzun du. Berrito jairoz gero %47,4k ez luke ezer aldatuko eta 37,9k zer edo zer aldatuko luke.

Zelan lotzen dira pensalarien eta jende arruntaren adierazpenak? Batzuen ustez ez da hain erraza aberastasuna eta zoriontasuna lotuta daudela esatea, horrelako azterketetan ez dagoelako eragina nondik nora doan jakiteko modurik (hau da, aberastasunak zoriona ematen du ala zorionsuak direnak gauza gehiago egiteko gai dira<sup>14</sup>). Ez dago, bestetik, egoera pertsonala modu “objektiboan” neurtzeko modurik, hau da, egoera objektibo berdin-berdinean pertsona bik erantzun ezberdinak eman ditzakete.

Askotan entzuten dugu gaur egungo gizarteetan anomia handikoak direla, horrela da? Ez genuke orduan zoriontasunaren maila bazuagoak aurkitu behar? Zein izango litzateke gizarte baten zoriontasun maila “normala”?

Askok sentituko du gauzak berdin antzera daudela orain eta hasieran. Pertsonok animalia arraroak gara eta gure lorpenak beti dira esanahi askodunak. Dena dela, antza denez argi dagoena da zorionsuak izateko geure burua ez dela nahikoa.

\* *Deustuko Unibertsitateko Soziologia irakaslea.*

<sup>12</sup>Ibidem 197-198 or.

<sup>13</sup>Peruko honako hau da: Alarcón, R. (2005): “Efecto de los desniveles socio-económicos sobre la felicidad” *TEORÍA E INVESTIGACIÓN EN PSICOLOGÍA* 14, 91-112 or.; eta Espainiako, “Juventud 06” CIS, Madrid. [www.cis.es](http://www.cis.es) web orrian dago edozeinek irakurri ahal izateko. Euskal Herriko Eustateko eta Eusko Jaurlaritzako ikerlanetan ere begiratu dut baina ez dut aurkitu zoriontasunari buruzko pareko ikerketarik.

<sup>14</sup>Haidt, Jonathan (2006): *La hipótesis de la felicidad*. Barcelona. Gedisa. Modu sinplean aurkezten ditu zoriontasunarekin lotuta dauden hainbat ideiekin lotutako ikertzaileen ikuspegiak.

### **LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIarekin batera banatzen da**

**Zuzendaria:** Xabier Letona

**Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L.

**Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria

**Posta Elektronikoa:** [larrun@argia.com](mailto:larrun@argia.com)

**Telefonoa:** 943 37 15 45  
**Inprimategia:** Antza S.A.L. **Informatika:** ASP SCOOP.

( ARGIAko 2.116-2117. zenbakiarekin banatua, 2007ko abenduaren 23an )